

Ezkabako mendi irteera

Naturako jardueren oinarriak



Egilea: Paula Diaz Diego

Irakaslea: Asier Oiarbide Goikoetxea

2017/2018 ikasturtea

Aurkibidea

Sarrera:	2
Marko teorikoa:	3
Metodologia:	5
Ibilbidearen proposamena.....	7
Ibilaldiaren argazkiak	8
Topogia	14
Eztabaida	15
Ondorioa	16
Erreferentziak.....	18

Sarrera:

Iruñako iparraldean kokatzen den ezkaba mendira ateraldia proposatzera nator oraingo hontan. Alaitzeko (barañaingo institutua) 2 dbh-ko ikasleentzat ateraldi bat besteak beste. 30 ikasle izango dira, eta ez da beharrezkoa esatea ibilbidea haien gaitasunetara egokituta egongo dela.

Ezkaba 895 metroko altuera duen mendia da eta lehen esan dudan moduan Iruñeako iparraldean kokatuta dago. Mendi honek duen balio historikoaz ezin gara ahaztu. Eta beraz naturarekin kontaktuan egoteaz gain gure herriko historiaren zati txiki bat ikasteko aukera ematen digu mendi honek, horregatik izan da hau aukeratutako mendia. Mendi honen tontorrean San Kristobal gotorlekua aurkitzen da, eta beraz gure herriko historia zatitxo bat ikasi ahalko dute hor.

Modu batez, orientazioa lantzeko balio izango du ateraldi honek. Mapak interpretatzen ikastea, eta baita marka ezberdinak interpretatzen jakitea ere. Beraz ateraldi honek bi helburu nagusi izango ditu. Lehenengoa ikasleak naturarekiko maitasun hori lortzea, ikastea naturan jarduera fisikoa egin daitekeela eta oso dibertigarria izan daitekeela, eta horren barruan, mendian mugitzeko beharrezkoak diren tresnak erabiltzen ikastea. Eta bestalde, Gerra Zibileko gertaera garrantzitsu batzuk gertutik ezagutzea.

Gure ikasleekin egiteko ateraldi aproposa da. Altitude baxuko mendia da, eta gainera aukeratutako ibilbidea ez da zaila izango haientzat. Gehitzeko aukeratutako ibilbidea ez dauka arriskurik. Hortaz, ikasle guztiak dibertigarri bezala hartuko duten jarduera bat bezala hartuko dut ateraldi hau. Horretarako oso garrantzitsua izango da eraman beharreko erritmoa. Aurrekoak azkenekoaren erritmoa eramango du. Horrela ibilbidea ez zaio inori gogor egingo.

30 ikasle izanda, 3 irakasle joango dira haiekin. Bat aurrean joango da, erritmoa egokia dela ziurtatuz. Bestea erditik joango dira, eta azkenekoa amaieran joango da, ziurtatuz inor bidetik gelditzen ez dela. Irakasleen lana ikasleak disfrutatzea, orientazioa lantzea, inor bidetik ez galtzea eta azkenik historia azaltzea izango da.

Denbora aldetik, ez du zailtasun handirik izango, mendia ez baita oso handia, eta ibilbide osoa egiteko 4 ordu behar izango baititugu askoz jota. Egingo diren atsedenaldiak eta nola ez hain garrantzutsua den historia hori azaltzeko beharrezkoa den denbora kontuan hartuta.

Kurtso amaieran egingo den ateraldia izango da. Horrekin egurldi ona egiten duela ziurtatuko dugu eta ibilbidea lokatzez beteta ez egotea baita ere. Baina aipatu beharra dago urteko edozein urtaroan egin daitekeen ateraldia dela.

Marko teorikoa:

Zer dira natur jarduerak?

Autore desberdinek eman dute haien ikuspuntua edo haien iritzia gai honen inguruan. Bernadetek esaten duenez (Guillen y Lapetra, 2000) natur jarduerak helburu komun bezala bidean aurkitzen ditugun oztopoak gaindituz, horrela gure fisikoa hobetuz, amaiera edo helduleku gertu batera ailegatzea gure desplazamendu indibiduala edo kolektiboari esker izango zen.

Gainera, Tierrak baieztatzen duenez (Gomez, 2002) natur jarduerak ezaugarri interdisziplinarra duen jarduera taldea dira. Hauek naturarekin kontaktuan ematen dira, eta heziketa helburu batekin, kirol helburu batekin eta dibertimendu helburu batekin.

Perez Ordasek (2001), natur jarduerak heziketa esperientzian sartzen du, honen oinarria "ikasi egiten" izango litzakeela (learning by doing).

Bestalde Parlebasek (1998) jarduera psikomotorren multzoan sartu zituen. Edota Marcla-ek (1988) inguru motorearen arteko gatazka edo kolaborazio bezala ikusten zituen.

Oinarrizko kontzetua dirudi baina argi ikusi dugunez autore desberdinek modu ezberdinetan definitzen dute. Baina esan beharra dago, punturen batean koinziditzen dutela, norbanakoak ingurune naturalarekin sortzen duen erlazioan, besteak beste. Beraz, ezaugarri honek natur jarduera guztiak harremanetan jartzeko gaitasuna dauka.

Naturak gizakiari misterioa, erronka, adaptazioa, gainditzea...eskaintzen digu. Honek gizakia berre buruari aurre egitea baimentzen du. (Gomez, 2008).

Granerok eta Baenak (2010) haien artikuluan komentatzen duten moduan, gaur egungo gizarteak haien ohituretatik ihes egiteko behar bat daukate, haiek aurkitzen dituzten arauetatik eta haien bete beharretatik. Ordenagailuaren aurreko lan indibialetatik ihes egin behar dute. Horretarako, azken aldian gizarteak nartu jarduerengana jo ohi du.

Jarduera hauek betetzen diren lekuek, gure inguruneari buruz informazioa emateko aukera daukate, ibaiak, fosilak, monumentuak, gure herriko historia...Eta hoiek parte hartzaileak jaso ahalko ditu natur jarduerak praktikatzeko bitartean. Bestalde, parte hartzaileen artean kooperazioa ez da zabaltzen den gauza bakarra. Kolaborazioa, talde bateko kide izatearen sentimendua, adierazpena lantzea eta harremanak sortzeko edo harreman eredu desberdinak daudela ere zabaltzen edo sustatzen dute natur jarduerak.

Beraz, esan dezakegu natur jardueren bidez, geografía, historia, fauna, flora...irakatsi daitezkeela. Ikastetxe gehienetan ikasgai hauek ematen dira, baina nola ez naturan egonda, presente egonda, askoz errazago ulertzen eta ikasten dira gauzak. (Arribas, H 2008).

Gehitzeko, pentsatuko dugu zenbat ikasi dezakeen ume batek eskolatik kanpo, objektu borobilak bilatzea, irakurtzea informazio tabloi bat, leku batera joateko orientazioa, zuhaitzak desberdintzea...

Eta beraz, horregatik lehen kirola eta jarduera fisikoa hezkuntzarako eta sozialki egokiak ziren baloreak zabaltzeko edota irakasteko erabiltzen zen. Esan beharra dago gaur egun gero eta ikastetxe gehiagok erabiltzen dutela jarduera fisikoa ikasleak hezteko (Amat, M, Batalla, A. 2000). Gainera jarduera fisikoak ikasleak burua deskonektatzeko eta ongi pasatzeko baliagarria da, lehen aipatu dugun moduan autore askok ikusten duten moduan ihes egiteko aukera ematen dutelako.

Bestalde, nabarmentzekoa da jarduera fisikoak orokorrean umeei ekartzen dizkien onurak anitzak direla. Hauen artean, onura fisikoak, mentalak eta sozialak aurkitu daitezke.

Baina, askorentzat kirolak duen konpetitibitatea txarra da umeak hezterako orduan. Baina, esan beharra dago kirol batzuek duten konpetitibitatea ongi erabilia onura handiak jaso ahal ditugula: kooperazioa, lankidetzeta, aurkariak errespetatzea...Kirolak hainbat balore irakasteko ahalmena dauka: talde lana, kooperazioa, eskuzabaltasuna, hezkidetzeta, gorputza zaintzea, osasuntsu jatea...(Amat, M, Batalla, A. 2000).

Ingurune desberdinen erabilera, naturara egindako ateraldiak...estrategia gomendagarriak dira gorputz hezkuntza on bat eskuratzeko (Olivera, 2011). Bestalde esan beharra dago natur jarduera perspektiba desberdinetatik aurrera eraman daitezkeela (Garcia y Quintana, 2005): Heziketa helburua, Kirol helburua eta helburu enpresariala. Baina aipatzekoa da oraingo honetan guretzat garrantzi handiena izango duena heziketa helburua izango dela; ikasleak kooperazioa, talde lana,... lantzen dituzten jarduetara bideratzea da.

Natur jardueretan mila gauza transmititu daitezke, baina esan beharra dago gehienetan hauek bilatzen ditugula edota bultzatzen ditugula: Konfiantza, errespetua, erantzunkizuna, laguntza, apaltasuna...beste pertsonekin interakzioan baigande. (Venero Venezuela, J.P. 2007). Horregatik berriz ere esango dugu ez dela arraroa autore desberdinek natur jarduerari hainbeste garrantzia ematea.

Natur jardueretan arlo kognitiboa eta arlo afektibo soziala lantzen dira. Klasekideen arteko erlazio interpersonalak indartzen dira, eskuzabaltasuna...Eta gainera ikasleak rol berriak izateko edo aurrera eramateko aukera izango du, beti liderra dena liderra izateari utzioko dio beste bat liderra izateko...(Garcia Aguilera, E.N. 2010).

Betiko gauza da ikasgeletan kooperazioa landu nahi izatea. Kooperazioa guztien parte hartzearekin guztiek onurak eskuratzean datza. Ikasgeletan kooperazioa lantzea askotan saiutzen da, baina esan beharra dago naturan, kontzeptu hau nahigabe edo derrigorrez ematen dela. (Arribas, H 2008)

Mendi ibilaldietan bakoitzak proposatutako helburuak lortzea poztasun handiena ematen du. Beraz, horregatik oso garrantzitsua da guztien ezaugarriak kontuan hartzea. (Perez Brunicardi, 2004). Gailurrera iristea gauzarik pozgarriena da, bistak nlakoak diren ondorengo gauz abat izango da. Eta talde osoa ailegatu dela askoz pozgarriagoa. (Arribas, H 2008).

Beraz esan dezakegu, jarduera fisikoa naturan praktikatzea ohitura izan behar dela txikiengatik. Honek estrés egora guztiei aurre egiteko lagunduko die. Eta bestalde, berriz aipatzearen natur jarduerekin bi arlo lantzen direla, hauek lantzearen garrantziarekin, arlo kognitiboa eta arlo afektibo-emozionala.

Metodologia:

Antolatutako ibilaldia, Alaitz ikastetxeko 2 dbh-ko ikasleentzat antolatuta dago. Beraz, helburua ez da izango ahalik eta azkarren igotzea, baizik eta guztiok gailurrera iristea eta hau gutxi balitz denok disfrutatzea. Beraz, jartzen dugun puntu derrigorrezko bakarra disfrutatzea izango da. Eta modu batez denok disfrutatzekeo irakasleek esandakoa bete beharko da.

Ezkaba mendi ateraldia ez da oso zaila izango. Horregatik garrantzia emango diogu guztiok erritmo berdina edo antzekoa eramateari. Hau da, lehenengoak azkenekoaren erritmoa eramango du, eta horretarako irakasle bate gongo da lehenengo ikaslearekin batera.

Nahiz jakinda irakasleak daudela eta hauek ikasleak ez galtzeaz arduratuko diren. Ibilaldia hasi baino lehen ikasleei dena azalduko zaie eta puntu garrantzitsu bat erremarkatuko zaie: talde bat garela eta guztiok igo behar garela beraz, denok adi egon beharko garela taldekideren bat ez galtzeko eta denok adi egongo gara atzeko asko urruntzen bada aurrean dauden taldekideei itxoiteko esateko.

Lehen aipatu dugun moduan 30 ikasleko talde bat izango da. Beraz, hasiera batean 3 irakasle joango dira, gerora irakasle gehi behar direl aikusten badugu beste bat jarriko dugu zein kotxez joango da istripuren bat gertatzen bada.

Askorentzat mendi hau igotzen duten lehenengo aldia izango da, beste batzuentzat aldiz, oso ezaguna izango da mendia. Baina talde erronka bat bezala ikusi beharko dugu, ikusita hain talde heterogeneoa izango dela laguntasuna izango dugu oinarri. Beraz, taldearen erronka talde osoa gora ailegatzea izango da.

Ibilaldia artikako igerilekuetan hasiko da. Ikasle guztiek bide berdina jarraituko dute hasiera-hasieratik. Esan beharra dago jeisterako orduan igo diren bide berdinetik jeitsiko direla. Aipatzeko bete puntu bat, bidetik 3 aldiz errepidea gurutzatuko dugla da. Beraz horietan nabarmenduko da irakasleen lana, talde osoa arazorik gabe errepideak zeharkatzea izango da haien eginkizuna, segurtasun guztia bermatuz.

Lehen aipatu dugun moduan Ezkaba mendiak 895m ditu. Eta Iruña hiriaren iparraldean kokatzen da eta ibilaldiaren puntu garrantzitsuenetariko bat; tontorrean historia lantzeko aukera paregabea, San Kristobal gotorlekua aurkitzen da.

Gure ibilaldia kurtso bukaerako ateraldia ospatzeko egingo da. Alaitzeko atean geldituko gara ikasleekin goizeko 8:10etan 8:15etan ateratzen egoteko (ahal izanez gero), ohikoena 8:30etan ateratzea izango da.

Artikako igerilekuetara 9:15etan ailegatzea aurreikusten dugu. Horietan mapa topografikoak emango dizkiegu ikasleei eta lehen esandago arau minimoak azalduko ditugu. Igerilekuetatik artikako alde zaharrera ailegatuko gara.

Ateraldia denontzat interesgarria, bukatzeko modukoa eta ongi pasatzeko modukoa izan behar denez, ez du zailtasun handirik izango. Horrela ikasle zein irakasle guztiok disfrutatu ahalko dugu.

Ibilbidearen erditik merenderoak zein atsedena hartzeko leku aproposak aurkituko ditugu. Eta beraz horietan atsedena hartuko dugu, zerbait jateko, edateko...Tontorrera ailegatzerakoan, ikasle bakoitzak eramandako hamaiketako jango du. Baina tontorrean hartuko dugun atsedena ez da horretan bakarrik geldituko, hasieran esan dugun moduan mendi hoenk tontorrean beste asko ez bezala historia garrantzitsu bat baitauka. Beraz, irakasleek historia hori azaltzeko eginkizuna izango dute. Lehendik klasean azalpen emana egongo da, baina oraingo honetan sakondu egingo dute irakasleek. Txangoak bi helburu izango baititu, naturarekin disfrutatzen ikastea, natura maitatzea eta bestetik mendi honen balio historikoa azaltzea.

Mendi baterako ateraldia denez, eguraldiak garrantzi handia izango du. Gainera gure ikastetxean kurtso amaiera ospatzeko egunak falta somatzen zuenez, kurtso amaierako egunean egitea pentsatu dugu. Horrela, eguraldi ona egongo dela ziurtatuko dugu eta bestalde kurtso amaierako eguna bete egingo dugu. Esan beharra dago mendi honek ez duela zailtasun handirik eta horregatik neguan egiteko ez dagoela arazorik baina gure helburua ikasleek naturarekin disfrutatzen ikastea denez, eguraldiari garrantzi handia eman diogu.

Eraman beharreko materiala:

Oinarrizko materiala egokia eramatea beharrezkoa da, nahiz eta zailtasun handia ez duen mendi bat izanda. Beraz hau aurkituko dugu beharrezkoa bezala (ikasleei paperez jakinaraziko zaie zer den behar-beharrezkoa):

- Arropa eroso eguraldi hoberena ateratzen ez bada prest egoteko. Kurtso maiaeran izanda ez du hotzik egingo beraz, zira batekin nahikoa izango da.
- Praka erosoak, datak ezagututa motzak gomendatzen dira.
- Jarduera fisikoa praktikatzeko kamixeta.
- Mendirako egokiak diren zapatilak, trekking zapatilak ahal izanez gero.
- Kantinplora, ez da mendi gogorra baina, hidratazioa behar beharrezkoa izango da.(bide hasieran kantinplora betetzeko iturriak aurkituko ditugu).
- Hamaiketako bezala hartzeko bokata, fruitu lehorrak...
- Plastikozko poltsa zakarrak hor gordetzeko. Natura maitatu dezaten egin da ateraldi hau eta horretarako natura errespetatzen ikasi beharko dute.
- Ikasle bakoitzari topogia bat emango zaio eta beraz ikasle bakoitzak topogia bat eramane beharko du.
- Eguraldi ona aurreikusten dugunez, eguzkitarako krema beharrezkoa izango da.
- Bixera eramatea gomendagarria da.
- Hau dena sartzeko motxila bat.
- Nahiz eta ikastetxearekin joan eta ikastetxeak informazio guzti hau izan, lagungarria izango da osasun txartela eramatea.

Irakasleek eraman beharrekoa berdina izango da, baina horri zenbait gauza gehituko zaie. Gotorlekuaren historia azaltzeko apunteren bat behar badute, botikina, mugikorra zeozer gertatzen bada edonor abixatu ahal izateko.

Ez dago esan beharra irakasleek behin gutxienez egina izan beharko dutela ibilbidea, mendia oso erraza baita despiteren batengatik galtzea.

Amaitzeko, beraz, ateraldi honen helburu nagusiak hurrengoak izango dira: Naturarekin disfrutatzen ikastea, natura errespetatzen ikastea eta horren garrantzia, talde lana sustatzea, gotorlekuaren historia ikastea eta azkenik, kooperazioa bultzatzea.

Ibilbidearen proposamena

Lan honetan planteatzera etorri naizen ateraldia, alaitzeko ataritik autobusa hartuta eta artikako igerilekuetan utzita hasiko da. Bidean zehar puntu estrategikoak aurkituko ditugu historikoki kokatuak edota puntu estrategikoak ikasleek nondik segitu behar duten jakiteko.

Artika (gure ateraldia herri horretako igerilekutik hasiko da) berrioplanoko kontzejuaren parte den herri bat da. Iruñerriko eskualdea aurkitzen da, iruñeko merindatean.

2014ean jasotako datuek esaten dutenez, 4045 biztanle ditu artikak. Hau Iruñeko zentrotik 5 km-tara aurkitzen da.

Artikan bi auzo desberdin aurkitzen ditugu, artika berri eta artikako alde zaharra. Alde zaharra ezkaba ondoan aurkituko da, berria aldiz, tren bidearen beste aldean.

Hegoaldean iruñarekin egiten du muga, ipar mendebaldean berriozarrekin eta ekialdean antsoainekin.

Esan beharra dago, guk igoko dugun mendiaren izena ezkaba dela eta mendi horretan San Kristobal ermita aurkitzen dela. Askoren ustez mendia San Kristobal deitzen da, baina iruñerrian ohikoa den akats bat da hori. Honek 895 metro ditu.

San Kristobal gotorlekua mendi tontorrean aurkitzen dela esan dugu lehen. Hau 1934ko iraultzatik aurrera espetxe bezala erabiltzen hasi zen. Kartzela honetan mila preso egon ziren, haien bizi baldintzak minimoak izaten eta oso kaxkarrak.

Gotorleku honetan kontatu beharreko historia famatuena eta garrantzitsuenetako bat ezkabako iheslarien historia izango da. Beraz, lan honetan askotan aipatu dugun moduan bi helburu nagusi izango ditu ateraldi honek, naturarekin disfrutatzea, tresnak erabiltzen ikastea eta historia ikastea.

Mendi tontorrean kontatuko zaien historiaren zati txiki bat hurrengoak izango da: 1938ko maiatzaren 22an, ezkabako kartzelatik 795 presok ihes egin zuten horietatik 206 erahildak izan ziren eta beste gehienak kartzelaratuak berriz, 4 izan ezik (frogatua ez dagoen arren). 3 izen aurkitzen dira gaur egungo historian frogaturik ihesi egin

zutela, Jovino Fernandez, Jose Marinero eta Valentin Lorenzo. Laugarrena ihes egin zuen edo ez jakiteko ez dago frogarik.

Ibilaldiaren argazkiak

Barañainetik atera, kuaderno bat, bolígrafo bat, kamara bat eta nola ez janaria eta hidratatzeko urarekin eta nire ateraldia prestatzera ekin nion. Oraingo honetan ibilaldiaren zehar lagungarriak izango diren mendiko puntuak agertuko dira argazkietan. Ikasleentzat lagungarriak izango direlakoan mendiko tontorrera ailegatzeko.

Esan beharra dago ibilaldia artiako igerilekuetatik hasiko dela, autobusak hor aurkitzen diren parkin haundi haundi batzuetan utziko gaitu.



Autbusetik jeitsi eta igerilekuen atera joango gara, hortik ezkerretara dagoen bide bat hartuko dugu. Honetan orduan 0'-an aurkituko gara.




Ikasleek aurkituko duten hurrengo berezitasuna: tren bide zahar bat. Hori ikustean ikasleek ezkerretara joan beharko dira. 2' hortik ezkerretara eginda zubi baten azpitik pasa eharko dira. Tren bideak jarraituz. Zubia 15'' segunduetara aurkituko da.




Zubia pasatzerakoan, hartutako bidea zuzen jarraituko dute ikasleek. Bi aldeetara ateratzen bideak atzean utziz. Bidea aurrera jarraituta artika herriko alde zaharrera ailegatuko dira. Non, haien botilak betetzeko aukera izango duten. **8'** Eraikin zahar horretan aurkitzen diren seinaleak begiratu eta haizeetarako bidea hartuko dute ikasleek.




Haizeetarako bide hori zuzen jarraituta, momentu batean eskuinera bide bat agertuko zaie, hori atzean utzi beharko dute. Eta errepidearekin elkartzerakoan ezkerretara dagoen bidea hartu beharko dute. **17'**



Beraz, errepidea eskuinean utzita bidea jarraituko dute ikasleek. Eta oraingo honetan bide osoan baliogarria izango den marka bat aurkituko dute harrizko batean (txurigorri). Harrizko bide batean sartuko dira. **18'**etara merendero batera ailegatuko dira, iturria merendero horretan egonda.



Argazkian ikusten dugun harrizko bidea jarraituko beharko dute ikasleek. Eta hortik **2'** etara bidetik jarrita dauden estatuta edo animalien forma dituzten objektu arraroak aurkituko dituzte. Hortik beste **2'** etara mapa eta beste figura bat aurkituko dute. **22'**



Gure ikasleek bidea jarraituko dute. Hartutako bidean figura gehiagoi aurkituko dituzte **23'** eta aurrerago hilerria. **25'**



Argazkian ikusten den bidetik gora egingo dute ikasleek eta hesi berde eta hori batera ailegatuko dira. Hori zeharkatu eta gorantz bidea jarraituko dute. (ongi ikusten da jarraitu beharreko markak jarraitzen ditugula).



Bidea jarraituz bide asko utziko ditugu atzean, edo hartuko ditugu egurrezko zubi batera ailegatzen garen arte eta horretan argi izango dugu gure bidea ongi jarraitu dugula, nahiz eta momentuoro marka txuri-gorriak aurkitzen ditugun hori ziurtatzeko.

Beraz, bidea jarraituta, eskuinera ateratzen den bidea hartuko dugu **28'**. Markak jarraituko ditugu eta eskuinera bidetxo bat aurkituko dugu, hori atzean utzi behar dugu. **30'**. Aurrerago bidetxo txiki bat aurkituko dugu eskuinaldean, atzean utziko dugu. **34'**. Aurkituko dugun hurrengo berezitasuna egurrezko zubia izango da. **37'**



Bidea jarraituz, hesi berde eta hori bat topatuko dugu. **39'**



Aurrera jarraituko dute ikasleek beraz. Merendero bat izango da aurkituko duten hurrengo gauza edo lekua. **42'**



Merendero horretan seinaleak ikusiko dituzte eta argazkian ikusten den bidea hartu beharko dute. Ezkerrean landatutako zelai bat izango dute.

Bidea jarraituz, errepidea lehenengo aldiz gurutzatuko dute. (Aipatuta dagoen moduan gure ibilaldi honetan 3 aldiz zeharkatzen da errepidea) horretarako irakasleek kontu handia izan behar dute eta adi ibili behar dira. **52'**



Errepidea zeharkatu eta orduan harrizko bidezidor bat hartuko dute. Beti ere gogoratu marka gorri eta txuriak jarraitzen ditugula.



Bide zidorratik jarraitu beharko dute. Bidezidorra jarraituz ez dute galtzerik. Harritzoen bidea izango da, harriz Beteta egongo da bidezidor hau.

Aurrerago 2 errepidea aurkituko dugu. Berriz ere zeharkatu beharko dugu. 69'



Errepidea zeharkatu dugu, beti ere irakasleak ikasleen segurtasun osoa ziurtatuz. Eta harritzoz sortutako bidezidorra hartuko dute ikasleek.



Bidezidorra jarraituz ikasleek irudi hau aurkitu beharko dute. Ez dago galtzerik baina ez badute aurkitzen galdu egin direla esan nahiko du. Markak jarraituz ez da arazorik egongo. 74'



Berriz ere errepidearekin elkartuko gara, oraingo honetan ez dute errepidea zeharkatu behar baina bai elkartu beharko direla. Errepidearekin elkartzerakoan ezkerretara dagoen bidea jarraituko beharko dute. Hurrengo argazki honetan harri bat aurkitzen da,

honetan erahildako presoen omenez plaka bat zegoen jarrita, baina argazkiak egin ditugun egunean ez zegoen. Ikasleei azalduko diegu historia zatitxo bat hor. 84'



Beraz, ezkerratarra dagoen bidea jarraituta, bide gurutze arraro batera ailegatuko gara. 92'. Honetan zuzen gora segituko dugu. Marka gorri eta txuriak ikusten ditugu argazkian, horiek izango dira ibilbide osoan jarraituko ditugunak.



Bidezidorra jarraituz, azken bide gurutzea aurkituko dugu. Horretan ekialderantz zuzentzen den bidea hartuko dugu. 96'



Harrizko bide hau jarraituko dute eta errepidera ailegatzen daudela alde batera antenak ikusi ahalko dituzte eta beste aldean gotorlekua.



Beraz, bide hori jarraituz, ikasleak gotorlekura ailegatuko dira. 100'



Topogia

Partziala	Guztira	Artika-Ezkaba mendi ibilaldia
	0' 100'	Gure ibilbidea artikako igerilekuetan hasiko da. Igerilekuaren ezker aldean dagoen zementuzko bidea (tren bidearen alde batean) hartuko dugu. (2 irudia)
2'	2' 98'	Tren bide zahar baten zatira ailegatu eta ezkerreko bidea hartuko dugu. Ondoren zubitik pasatuz. (3.irudia)
6'	8' 92'	Bidea jarraituz, artika zaharreko etxe zahar batera ailegatuko gara, iturria aurkituko dugu eta ezkerreko bidea hartuko dugu. Haizeetarako bidea. (5.irudia)
9'	17' 83'	Bide hori jarraituz, errepidea eskunietara utziko dugu herriarekin batera. (6.irudia)
1'	18' 82'	Bidea jarraituz, harrizko txikiz osatutako bidea hartuta, merendero moduko batera ailegatuko gara. (7.irudia)
2'	20' 80'	Bidea jarraituz egurrezko figura arraroak aurkituko dituzte, besteak beste hartz bat. (8.irudia)
2'	22' 78'	Aurrera jarraituz, mapa bat eta beste figura arraro bat aurkitu dituzte. Hortik pasatzen den bidea jarraituko dute. (9.irudia)
3'	25' 75'	Bidea aurrera jarraituz hilerria aurkituko dute ikasleek. (10.irudia)
3'	28' 72'	Bidea bitan zatituko da eta guk eskuinera ateratzen den bidea hartuko dugu.
2'	30' 70'	Eskuinera bidetxo txiki bat aterako da, guk atzean utziko dugu bide hori.
7'	37' 63'	Egurrezko zubitxo bat aurkituko dugu. Hori zeharkatu eta bidea aurrera jarraituko dugu. (11.irudia)
2'	39' 61'	Berriz ere bidea jarraituz, hesi berde eta hori bat aurkituko dugu eta aurrera jarraituko dugu. (12.irudia)

3'	42' 58'	Bide berdinatik jarraituz, merendero bat aurkituko dugu, hor deskantso txiki bat hartuko dugu. (13.irudia) Aurrera jarraitzeko 14. Irudian agertzen den bidea hartu beharko dute. Ezkerraldean landatutako zelai bat izango dutela.
10'	52' 48'	Lehengo errepidera ailegatuko dira ikasleak. (15.irudia)
17'	69' 31'	Bidezidorra jarraituz 2 errepidera ailegatuko dira. (16.irudia eta 17.irudia)
5'	74' 26'	Ikasleak aurrera jarraituta, bidezidorra jarraituz, zuhaitzez inguratutako bidera ailegatu beharko dira. (18.irudia eta 19.irudia)
10'	84' 16'	3. aldiz errepidearekin elkartuko dira ikasleak baina, oraingo honatan ez dute errepidea zeharkatuko. Puntu horretan harri bat aurkitzen da, bere garaian erahildako presoan omenez jarritako txapa bat zegoen, bina oraingo honetan norbaitek kendu du. (20.irudia)
8'	92' 8'	Bide gurutze bat aurkituko dute ikasleak, zuzen goruntz doana hartuko dute hauek. (21.irudia)
4'	96' 4'	Bidezidorra jarraituz azken bide gurutzea aurkituko dute. Horretan eskuineko bidea hartu eta goruntz igoko dira. (22.irudia eta 23.irudia)
4'	100' 0'	Bidea jarraituz tontorrera ailegatuko dira ikasleak. Ezkerrean gotorlekua izanda eta eskuinean antenak. (24.irudia eta 25.irudia)

Eztabaida

Honako atal honetan, proiektuaren inguruan egin edo izan dudak eztabaida aurkeztuko dut. Zertan oinarritu naizen hala nola.

Lan hau egiteko beharrezkoa izan da natur jardueren inguruan lan egitea, hauen onurak ezagutu behar baitgenituen.

Bide batez, badakigu natur jarduerak onura fisikoak ekartzen dituela, baina beti ere beste onura tipo batzuk ahazten ditugu. Sozibilizazioaren onurak adibidez. Modu batez, jarduera fisikoaren bidez harreman eredu berriak lantzea helburu bezala baitugu. Hau da, Gutierrezek (1995) esaten zuen moduan, bakoitzak hartzen duen rolean eta gizartearen legen ikasketetan laguntzen dute natur jarduerak. Gainera gerora barneratutako baloreak bizitzaren beste esparruetara eramateko ahalmena uzten dute natur jarduerak.

Gure irteera gazteentzako irteera bat izango da. Eta horretarako denak disfrutatzeke taldearen ezaugarriak ezagutu beharko ditugu. Aukeratutako mendia aproposa dela uste dut eta beraz ikasle guztiek disfrutatuko dutela ziurtatuta dago. Baztuek erreztasun handiagoak izango dituzte beste batzuek baino, baino horretan oinarrituko da gure ibilbidea, denen artean aurkitzen diren desberdintasunak ahaztuta gure helburua ikasle guztiak tontorrera ailegatzea izango da. Beraz talde kohesia beharrezkoa izango da.

Lehen aipatu dut soziabilizatorako onura asko ekartzen dituela natur jarduerak, hala nola, ikasleen arteko erlazioak indartu nahi ditut eta haien arteko harreman eredu aldatu. Arribasek (2008) esaten zuen moduan, Naturan ibiltzeak taldekideen arteko erlazioa indartzea ekartzen du. Ez baita esan behar ikastetxeetan zein zabaldua

dagoen kuadriletan, talde txikietan ibiltzeko ohitura, eta beste gazte taldeekin erlaziorik ez izatea. Eta beraz, erlazioak landuko ditugunez edo landuko direnez natur jarduerak lantzean, talde txikitxo hoiak desagertuko dira ta talde haundi bat sortuko da. Denon artean harreman polit bat sortuz.

Lanean zehar aipatu dudan moduan, mendi ibilaldi batean rola aldatzen dira, liderrak zirenak lider izateari uzten diote eta ahulenak indarra hartzen dute. Eta gainera aipatzekoa da gure ibilaldia hezkuntzan izango dela eta oso garrantzitsua izango dela gure ikasleek balore hauek haien hezkuntza jasotzea. Hala nola, errepetua, konfiantza, laguntza, apaltasuna, eskuzabaltasuna...gehituta lehen aipatu duguna geografia, historia, natura...(Venero, 2007).

Konpetitibitatea bermatu nahi ez dugun balore bat izango da gure ibilaldian, kooperazioa izango da gure oinarria, laguntasuna...oso garrantzitsua izango da gure ikasleek hori bidai osoan ez ahaztea.

Bestalde, gizakiok sortzen ditugun hondamendietaz ohartuko dira ikasleak, zaborra, errepideak, antenak...eta horrek naturarekin errespetuta piztuko du haiengan.Espazio natural batean garatzen diren jarduerak, partehartzailengand esperientzia ahaztezinak ekartzen dituzte (Parlebas) Horregatik garrantzi handia emango diogu ikasle guztion ezaugarriak ezagutzeari, ateraldi hau ahaztezina izango baita eta hauek sentsazio onak gorde beharko dituzte nahi badugu natur jarduerak praktikatzan jarraitzea.

Ondorioa

Hasteko, esan beharra dago oso interesgarria iruditu zaidala lan hau. Modu batez, gure alorreko lan bat delako eta gainera gure etorkizunean horrelako mila antolatutako behar izango ditugulako eta horretarako beharrezkoa zaigu orain ikastea.

Bestalde, esan beharra dago beti pentsatu dudala oso erraza izango zela ibilaldi bat antolatzea, baina lan hau egiterakoan puntu garrantzitsu askotaz konturatu naiz. Alde batetik, mendia edo egingo dugun ibilaldia oso ongi ezagutu behar du irakasleak, bestalde ibilaldi ezagututa taldearen ezaugarriak behatu beharko ditu, horrela inork ez sufritzeko eta denok disfrutatu ahal izateko, esperientzia ahaztezin bat izango baita.

Aipatu beharra daukat ateraldi hau oso ongi ezagutzen nuela. Barañainen ikasita ikastetxearekin eginda neukan ateraldi hau, ez bide honetatik zehatz mehatz baina, familiarekin eta lagunekin eginga nuen ibilaldi hau. Baina aipatzekoa da horrek ez duela kentzen oraingoan egingo behar izan dudana lana mendia igoz dena apuntatzen denari arreta jarritz.

Gehitzeko, aipatu beharra daukat marko teorikoa egiterakoan mila gauza ikasi ditudala, betidanik jakin izan dut natur jarduerak onura asko ekarri zitzazkeela nire familian hori irakatsi baitidate, baina inoiz ez dut izan teorikoki hain ziur.

Bestalde, aipatu beharra dago zenbat ikasi daitekeen natur jarduerak praktikatzan. Edo zenbat ikasi dezaketen ikasleek. Hala nola, ateraldi bat egiterakoan orientazioa, mendian ibiltzeko tresnak...erabiltzen ikasiko dute. Baina ez hori bakarrik, ikasgelan askotan ikasten diren gauzak errazago barneratzeko aukera ematen dute, historia (horregatik aukeratu dut ezakaba mendia, historia garrantzitsu hori kontatu beharreko

baitzelako), natura, ibaiak...ikasteko aukera ematen dute. Eta bestalde, laguntasuna, errespetua, kooperazioa...landuko dira horrelako ateraldietan. Eta amaitzeko natura errespetatzen ikasiko da, natura maitatzen eta naturan disfrutatzen ikasiko da.

Beraz, lan honen ondorio bezala ateratzen dudan natur jarduerak nik uste nuen baina garrantzi handiago bat hezkuntzan izan behar dutela da. Hezkuntzan natur jarduerak sartzea garrantzitsua iruditzen zait.

Erreferentziak

Arribas Cunero, H., Blas Asenjo, D., Cabanas Sanchez, V., de Las Heras Carbajo, A. (2008). Una puerta (entre) abierta: oportunidades educativas en el medio natural. *EF y el Deporte*, (7-8).

Arribas, H (2008). Caminar por la naturaleza: un planteamiento de ocio y inclusion.

Baena Extremera, A., & Granero Gallegos, A. (2008). Las actividades físicas en la naturaleza en el currículum actual: contribución a la educación para la ciudadanía y los derechos humanos. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (14).

Brunat, D. (2017). La 'gran evasión' de la Guerra Civil que acabó con 206 fusilados y casi nadie conoce: la mayor fuga carcelaria conocida en Europa. *El Confidencial. Cultura*. 14 de abril de 2017.

Costa, S. L., & Correas, R. G. (2005). La motricidad de las actividades físico-deportivas en la naturaleza. La función recreativa de su práctica en la sociedad contemporánea. *Apunts. Educación física y deportes*, 2(80), 53-62.

Feixo, C. (1995) la aventura imaginaria. Una vision antropologica de las actividades físicas de aventura en la naturaleza. Universidad de Lleida.

Granero Gallegos, A., Baena Extremera, A., & Martínez Molina, M. (2010). Contenidos desarrollados mediante las actividades en el medio natural de las clases de Educación Física en Secundaria Obligatoria.

Lapetra, S. (2005). La motricidad de las actividades físico-deportivas en la naturaleza. La función recreativa de su práctica en la sociedad contemporánea .

Moreno, J. A. Las actividades físicas en la naturaleza a través del ocio, la recreación y educación.

Navarro Patón, R., Arufe Giraldez, V., & Sancosmed Santaballa, E. (2015). Las actividades en el medio natural en la educación física escolar. Formación y actitud del profesorado de Educación Primaria. *RETOS. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (27).

Parlebas, P. (1981) Contribution á un lexique commenté en science de l'action motrice. París: Insep.

Sánchez Hernández, P. (2016). El senderismo en la Educación Física escolar: aprendiendo en el entorno próximo.

Teixeira, C. y Kalinoski, S. (2003). La importancia del deporte como factor social en las matrículas en escuelas deportivas de la administración pública de Pindamonhangaba - Brasil. En *efdeportes*, revista digital.

Venero Venezuela, J.P. (2007). La clase de Educación Física como motor de cambio social. Reflexionando sobre actividades en la naturaleza, curriculum oculto y valores.